

## BALIOA

### PATINETE ETA BIZIKLETEN ALOKAIRUA

Gu, patinete eta bizikleta elektrikoen alokairuan arituko gara. Empresaren balioa kuantitatiboa zein kualitatiboa izan daiteke, gure kasuan, biak izango ditugu. Batetik kuantitatiboa ( neurtu daitekeena), "xedeak" hainbat tokitan izango ditugu, euskadin izango denez bakarrik, bata bestearikiko gertutasuna handia izango da eta beraz patineteren edo bizikletaren batek arazorik izanez gero, gertu egongo da lekuren bat konpontzeko. Prezioa ez da oso garestia izango mantentze lanak baldintzatuko du bakarrik, ez ekoizpenak.

Balio kualitatiboarekin, patineteak zein bizikletak, nahiko berriak izango dira eta ez dira oso bereziak izango kolorearen aldetik, nahiko minimalistak izango dira, bezero gehienei ez zaielako gustatzen arreta asko bereganatzea. Iruditzen zaigu garrantzitsuagoa dela erabilerak/ funtzionamendua, estiloa edo itxura baino. Gainera, bezeroek edozein ordutan izango dute eskuragarri produktua, berdin izango da goizeko 10:00etan zein gaueko 9:00etan.



Lehiakideeengandik bereizten gaituena, batetik, ingurumenarekin dugun erantzunkizuna da. Gure produktuak ez du kutxatzen eta ez dio inguruneari kalterik egiten. Kalteen barruan, hainbat mota egon daitezke, akustikoa, kutxamena... gure produktuek ez dute apenas zaratarik egiten eta energia berdea erabiltzen dute.

Bizikletak elektrikoak izatean, pedalekin bakarrik kargatu egingo dira, hau da, zenbat eta gehiago pedaleatu, orduan eta denbora gehiago izango du bateria. Patineteekin ez da horrela izango eta horregatik, kaletik patineteak kargatzeko lekuak egongo dira.